

## HEMEROTEKA • Interneti buruzko hainbat gogoeta

### Agur, Friedensreich Hundertwasser



■ Friedrich Stowasser izenez Vienan duela 71 urte jaioa, Friedensreich Hundertwasser margolari eta arkitektoak planteamendu ekologikoak ekarri zituen mende honetako Europako arkitekturara. Lerro zuzenaren aurkakoa, espiralaren balioa aldarrikatu zuen, nortasun eta estetika bereziko eraikuntzak diseinatu, landareak erabiliz bere eraikuntza lan gehienetan. Polemiko erabat, simetriarik eta arrazionalismorik ez zuen nahi bere lanetan. Eztabaida anitz piztu zuen bere bizitzan. Gaudiren anaia artistikotzat agertzen dute batzuek. Gaur zortzi hil zen, itsasoa zeharkatzen zuen ontzi batean zihoala.

### «Internet tresna eraginkorra dateke kultura txikiarentzat»

Roman Gubern

**P**entsalari katalanek sarea lotzatien babes moduan agertzen du bere azken saiakeran (*El eros electrónico*). Bere ustez, teknologia berriek diskurtso ekonomizistak besterik ez dituzte sortu, gizakiaren arlo emozionala baztertuz. Ildo horretatik «aurrerapen teknologikoen gizarte hau bakardadearena da» bere ustez. Txiki eta handien arteko alde gero eta handiagoa egiten du sareak bere arabera —«zergatik Rwandan ez zen 2000 Efekturik izan?»—. Hala ere, Internetek txikienei aukerak eskaintzen dizkiela dio, «eraginkorra izan daiteke inperiotik kanpo dauden kulturek tokian tokioa unibertsala izan daitekeela erakusteko aukera baitute». Produktibitate hutsa baztertu eta emozioak aldarrikatzeko ordua heldu da, bere ustez. • EL PAIS otsailak 10

## Sare birtualari neurriak hartu nahian

### Internet komunibiderik demokrati-koena legez aurkeztua zaigu,

eskaintzen dituen aukerak ikaragarriak direla esatearekin batera, ia edonork bertan lekua har dezakeela entzuna dugu sarritan. Kultur komunitate ahulenek ildo horretan indartsuenen ondoan agertze-ko ahalmena lukete. Hortik abiatuta, zenbait kultur gile itxaropentsu ageri da, baina entzuten da hori guztia erlatibizatzen dutenen ahotsik ere, sarearen bitartez bultzatzen den gizarte eta kultur eredu kezagarria dela esanez. Eztabaida hasi besterik ez da egin.

### «Internetek paroxismoa darama Marcel Duchampen logika»

L. Sauerwein

**A**rte eskola multimedia bateko sortzaile dugu Laurent Sauerwein frantziarra. Bere ustez, «Internet jendea ordenagailu aurrean biltzen duen sare moduan ulertzen baldin badugu», materia erabat aberatsa bilakatzen da «kultura, hizkuntza, denboretan. Ez dakit artista batek nola egin dezakeen horren aurrean entzungorrena». Artista legez aipatzen du hain zuzen Sauerweinek Interneten ekarpen nagusia: «Marcel Duchampen artista eta ikuslearen arteko topaketan oinarritzen zuen artelana. Internetek logika hori paroxismo-raino darama» • LE MONDE otsailak 23

### «Interneten materia giza jakituriaren erabateko batuketa da»

Michio Kaku

**F**isiko eta pensalari estatu batuarra dugu Michio Kaku. *Etor-kizunari buruzko ikuspegiak (Zientziak materia, bizitza eta adimena nola irauliko dituen XXI. mendean)* saiakeraren egilea da eta bere ustez, «Interneten neurriak planetarenak dira, bere materia giza jakituriaren batuketa erabatekoa da eta bere audientzia milaka milioietaraino helduko da berandu baino lehen». Hortik abiatuta, sarearen erronka nagusia, Kakuren arabera betiere, «agente informatiko adimentsuek zaborra eta material baliotsua galbahetik pasatzen jakitea litzateke». • LA VANGUARDIA otsailak 20

### «Gero eta harreman gutxiago izango dugu benetako gizakiekin»

Norman Nie

**S**tanfordeko Unibertsitateko lan talde batek aurkeztu berri duen ikerketak ere «jendetza bakarti» berri baten agerpena iragartzen du. Norman Nie irakasleak 4.113 Internet erabiltzailearen egunerokoa jarraitu du, eta bere ustez, «mundu osoa Interneten ahalmenek eskaintzen dituzten aukerekin zoratzen ari da eta inork ez du galdetzen ea ordenagailuak nonahiko bilakatutakoa norantza joko dugun». Niek ez dut zalantzarik gauza batean: «Zenbat eta denbora gehiago pasatu pantaila aurrean, orduan eta harreman erreal gutxiago izango dugu benetako gizakiekin». Lau estatu batuarretatik bat Internetera konektatuta dago gaur egun, eta horietako asko lana etxera eramaten hasi dira: «Lana ipar amerikarren etxeak inbaditzen ari da eta ez dute inongo saririk. Negargarria da benetan». • EL MUNDO otsailak 17

## ZAZPI BEGIKO •

### Kolpean

• Xabier Euzkitzeren beste aurpegi bat ezagutuko dugu datorren maiatzean: kantautorearena. Bertsolariak berak idatziriko hamar kantu grabatuko ditu IZ etxearen estudioan. Inaki Salvador, Pascal Gaigne eta Joxan Goikoetxea musikariak izango ditu laguntzaile.

## Gaztaina zimela

Gaztaina. Horrela deitu ohi zaio maisulan handi baten salneurrian erosten den artelan kaskarrari. Gaztaina zimela. Kasta horretako (arte)lanak ba omen dira Guggenheim museoan osatzen ari den bilduma propioaren barruan. Beste inongo erakunde erosiko ez litzuzkeen lanak erosi omen dituzte Bilborako, besteek nahiezta utzitako lanak.

Egia da, ez da erraz jakiten gaur erositako artelanak bihar ere artelan izaten jarraituko ote duen. Denboraren iraga-

nak ematen edo kentzen baitio balioa utzteko artelanari. Denborak, edota indar mediatiko, politiko eta ekonomikoek, hobeto esan. Horixe da arte garaikidearen patua. Baina hala ere artelanetik gaztainara arteko tartea handia da, inondik begiratuta ere.

Guggenheimen bilduma propioaren balio eta koherentziaren inguruko kezka askotan aipatzen den kontua da argetzaren munduan. Garmendiaren ekipoa Kultura Sailean laketu zenetik, eroske-

tarako aholkulari taldea bertan behera geratu zen eta gaur lan hori nork egiten duen ez dago oso argi.

Bilboko Arte Ederretako museoko zuzendari Miguel Zugaza harritu egin du New Yorkeko Guggenheim bilduma osatzeko Bilbokoak egindako ahaleginak. «Bilbokoak bilduma osoa izan behar duela argi dago, ez New Yorkekoaren osagarri huts», esan du. Berak zuzentzen duen museo orain hasiko da arte garaikidea erosten, nahiz eta arte klasikoak dituen zubate nagusi. Baina ez al da, bada, zehazki horretarako eraikiko Gasteizko museo berria?

Lorea Agirre